

**ESTADISTIKA AZTERKETEN ARLOKO BURUA**

**LANPOSTUAREN ZEHAZTAPEN LABURRA / DESCRIPCION RESUMIDA DEL PUESTO**

Arloko teknikarien ekintzak zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea poliziaren intereseko estatistika-datuen kudeaketaren eta azterketaren esparruan dagozkion helburuak lortzeko.

**EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHATZA / DESCRIPCION DETALLADA DE LAS TAREAS**

Zuzendaritzari ekintza-ildoak proposatzea poliziaren intereseko datuak aztertzearen esparruan helburuak lortzeko.

Estatistika polizialaren kudeaketari eta azterketari dagokionez, Arloko teknikariek egin behar duten lana banatu, koordinatu, bideratu eta zuzentzea Saileko arduradunek informazioa jasotzeko dituzten premiei erantzuna emanez, premia horiek aldizkakoak edo noizean behingoak diren kontuan izan gabe.

Lanpostuaren berezko kontaktuak eta harremanak edukitzea: barnekoak polizia-arduradunekin, Informazioaren Teknologien Alorreko arduradunekin, sailburuaren Kabinetarekin eta gainerako Sailekin; eta kanpokoak estatistikaren alorreko polizia-arduradunekin, informazio-eskatzailleekin (Erakunde publikoak eta pribatuak) eta enpresetako langileekin.

Ertzaintzaren Informazio Sistema Estatistikoaren ezarpena eta mantentzea bultzatu eta kudeatzea.

Helburu estatistikoak dituzten datu-baseen elikadura, mantentzea eta kudeaketa hobereena izateko beharrezkoak diren lantaldeak bultzatu eta koordinatzea.

Estatuko, autonomietako eta udaletako polizia-kidegoekin estatistikak trukatzeko programak eta sistemak diseinatu, planifikatu eta kudeatzea.

Arloaren urteko memoria eta eskatzen zaizkion aldizkako txostenak egitea.

Kabineteko zuzendariari laguntzea Arloari eragiten dioten ildo orokorrak erabakitzen.